



OLENTZERO EKUADORRERA ERE IRITSIKO DA

Asteasuko Udalaren proiektu bati esker eskola materiala eta gozokiak dituzten 200 motxila banatuko ditu »6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2009-12-23

VIIURTEA 1.889.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

MARTXELO OTAMENDI 'EGUNKARIA AUZIA'KO AUZIPETUA

«Iritsiko da eguna torturatzailerak akusatuen aulkian eseriko dituguna»

TOLOSA Otamendiren hitzetan epaiketa «ez da gaizki hasi, fiskalak ez zuen galdera bat bera ere egin»

ELKARTASUNA Jasotako babesak eskertzen du kazetari tolosarrak eta «batuta jardutea ezinbestekoa» dela dio »3



Efficient Home Energyren Tolosako egoitzan egin zuten atzokoan sari banaketa ekitaldia. I.TERRADILLOS

CASA ECEIZARENA IZAN DA EKIMEN BERRITZAILERIK ONENA

TOLOSA Tolosaldea Garatzenek antolatzen du Enpresa Ekimen Berritzaileak Sortzeko Lehiaketa; 24.000 euro jasoko ditu saridunak »



Lizartzako haurrak Mari Domingirekin egoteko aukera izan dute. HITZA

Dena prest Olentzerori eta Mari Domingiri ongietorria egiteko

GIZARTEA Bihar iluntzean iritsiko dira ikazkina eta bere emaztea eskualdeko herri guztietara »



MOTO-JAUZI JAIALDIA



Abenduak 26 • Larunbata
Donostiako belodromoan

Mari Kruz Iraola
Karmele Begiristain
Maialen Ibaigar Urreta
Igor Ugalde
Gregorio Begiristain

Sarrerak leihatilan
harpidedun txartelarekin

TXOKOA hitza



LAGUN ARO GBC MTT Estudiantes

saskibaloi partidarako
Abenduak 27 • 12:30ean • Illunben

Manoli Jauregi

Sarrerak HITZAko gure egoitzan



saridunak

BERTSO JAIALDIA



Abenduak 27 • 17:30ean
Ibarrako kiroldegian

Martxeli Sagastume

Sarrerak HITZAko gure egoitzan

E | Elkarriketa

MARTXELO OTAMENDI | 'Egunkaria auzia'ko auzipetua

«Iritsiko da giza eskubideak urratu dituztenak epaitzeko unea»

Tolosa » Lanpetuta dabil Otamendi, baina hartu du irakurleen galderak erantzuteko tarte; elkartasun mezuak nagusitu dira elkarriketan.

ERREDAKZIOA

Martxelo Otamendi tolosarra TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZaren erredakzioan izan zen pasa den astelehenean irakurleen galderak erantzuten. Behin eta berri-errepikatu duen moduan epaiketa honek ez dauka zentzurik eta horrexegatik dio «guri ere iritsiko zaigu, Argentina eta Txilen bezala, giza eskubideak urratu dituztenak akusatuen aulkian esertzeko unea. Jakin dezatela Videlak, Arguindeguik, Galtierik, Astizek, Echevarria mexikarrak eta konpainiak nola bukatu duten».

Epaietak luze joko du, urtarrilaren jarraituko du, zein da lehen bi epaiketa egunetako zure balorazioa?

Epaiaketa ez da gaizki hasi. Fiskalak ez zuen galdera bat bera ere egin. Ez da ohikoa.

Herri honetan izaten dugun gehiegikeria bat gehiago izan da Egunkaria itxtearena. Agian are larriagoa egunkari bat delako eta adierazpen askatasunaren aurkako eraso delako. Baina, zergatik hain erantzun desberdinak gehiegikeria guztiak independentziari atek irekte direnean? Desberdina al da tortura Torrealdaik jasaten duenean edo gazte mugimenduan bere borroka independentzia gauzatzeko lanean ari den gazte batek jasaten duenean? Zergatik desberdintasun horiek? Ez al gaitu herri bezala moral ahulagoko egiten?

Ez zaizu arrazoirik falta. Torturak berdinak dira, denek merezi dituzte gaitzespena eta elkartasuna. Gure kasuan, behar bada mediatio-koagoak garelako, ezagunagoak, adinduagoak... bereizten gaituzten hainbat elementu daude. Baina guk beti erakutsi diegu elkartasuna beste torturatuari. Zer egin? Segi lanean, salatu tortura leku eta une guztietan. Iritsiko da eguna, torturazaitaleak akusatuen aulkian eseriko dituguna.

«A ver cómo demostramos nosotros que no somos terroristas cuando se han hecho unas detenciones espectaculares...». Torrealdairen hitzak Diario Vascon.

Euskal preso politiko baten senide bezala iraingarria egiten zait, gizon honek zehazten duen helburua bere ohorea garbitzea besterik ez denean. Eta noiz hasiko da herri honen ohorea garbitzen? Izan ere ez ahaztu eraso hori herri honi egin zitzaioela...

Torrealdairen hitzak ez dituzu, nere ustez, ondo ulertu. Joanmari ez da besteei egindako ezer justifikatzen ari. Ez da esaten ari hari ez, eta zure senideari bai. Joanmari behin eta berriro erakutsi die elkartasuna errepresioa jasan duten guztiak. Irakurri larunbatean Bilbon irakurritako mezua. Aste honetan gurekin Espainiako Auzitegi Nagusiko korridoreetan topo egindako gazte epaituak gogora ekarri zituen Joanmari. Baita

Guardia Zibilak bazekien gu ez ginela ETAkoak; Euskal Herriari emandako abisua izan zen

Iritsiko da eguna torturazaitaleak akusatuen aulkian eseriko dituguna

gure atzetik datozen Udalbiltza-koak ere.

Euskal Herriko txoko guztietako jendea batu ginen larunbatean Bilboko kaleetan zehar. Euskal herritarrak beste behin ere batuzko agertu ginen elkarri babesa eta indarra emateko. Soilik eskerak eman nahi nizkizun euskaragatik eta herri honegatik egin duzuen lan guztirengatik. Itxaropena ez dadila galdu eta Madrildik aske itzul zaitezte.

Eskerririk asko. Lan handia dago egiteko eta denon artean lortuko dugu ondo ateratzea. Batutajardutea ezinbestekoa da.

Zer sentitzen da hainbeste jende zuekin dagoela eta kalera ateratzen dela ikustean?

Zor handi bat jende horrekiko. Urte askotan pilatu dugun eta sekula ordainean ematera iritsiko ez garen zorra.



A. IMAZ

Zer esan Euskaldunon Egunkaria ETA dela uste duten horiei? Honezker nazkatuak egongo zarete, ezta?

Guardia Zibilak bazekien gu ez ginela ETAkoak. Egunkariaren aurkako eraso Euskal Herriari emandako abisua izan zen: «Eduz zer gauza egiteko prest gaude herriaren asmoak zapuzteko. Benetan ari garela ikus dezazun, inork espero ez duena egingo dugu, Egunkaria itxi eta arduradunak ET Aki kidezat jo». Horixe izan zen Guardia Zibilaren asmoa gure auzian. Baina, denon ahalgintza, gaizki aterako zaie.

Zer moduzko bizipena izaten ari da Espainiako Auzitegi Nazionalako epaiketa?

Gutakobatzuk egondagaude lehenago makina bat bider. Ni neroni, bi aldiz izan naiz Garzonek deituta deklaratzeko ET Aki elkarriketak egiteagatik. Eta beste hainbat aldiz izana naiz, zenbait epaiketa ikusten, lekuko bezala, kazetari lanean... Ondo ezagutzen ditut etxe horretako zuloak.

Zein da guzti honen alde ona?

Ez dauka batere alde onik. Nik, behintzat, 7 urtetan ez diot aurkitu. Egunkaria itxi, atxilotu, torturatu eta epaitu, hori ezer egin ez duzuela kontutan hartuta, nik behintzat hala uste dut, zer nolako justizia da hori? Nork sinesten du justizia honetan? Ez al da gogorra antzerki horren aurrean aktore bat gehiago izatea?

Ez zaizu arrazoia falta. Gurekin, eta beste askorekin, egin dutena ez da justizia. Eta haiek ere, poliziek, epailek, fiskalek, auzi medikuek... badakite. Iritsiko da guzti hori epaitzeko eguna.

Bilbon elkartu ziren guztiak 'Egunkaria' edo 'Berria' irakurriko balute...

Arrazoa duzu, baina badakigu hori ezinezkoa dela. Hala ere, Berria irakurri edo ez, oso eskertuta gaude joandako guztiak.

Noiz amaituko da epaiketa eta noiz jakingo duzue sententzia?

Epaietak urtarrilaren 12an, eta 25etik 27ra jarraituko duela jakinarazi digute

Inkomunikazioa, euskaldunen hiztegian, tortura da; poliziak zu torturatzeko hartzen duen tarte da

Joan den astean data hauek eman zizkiguten: urtarrilaren 12a, eta 25etik 29ra, biak barne. Baina ostiralean jakinarazi zigutenez bi egun kendu dituzte eta epaiketa 12an eta 25etik 27ra izango da.

Euskal kultura eta euskalgintza eraso eraso aipatzen da behin eta berri. Zergatik?

Susto bat, abisu bat, eman nahi ziguten euskal herritarro; ordu arteko bidetik segituz gero... jakin genezan zer etorriko zitzaigun.

PSOE eta PPren ordezkariak adierazpenak egin dituzte manifestazioaren ondoren. Hoiligan hitz ere aipatu dute. Zer iruditzaizu?

PPkoak oso ondo ulertzen ditut, beti txalotu izan dutelako Egunkariaren itxiera. PSOE alderdiarena da ulertezina. 2003ko otsailaren 22ko manifestazio erraldoian izan

zen orain sailburu den bat, Gema Zabaleta. Orduan izan bazen, zazpi urte hauetan ezere delo frogatu ikusi ondoren, nola egin ditzakete adierazpen horiek? Haien aurka itzuliko dira, gaizki jaurtitako bumeranarekin gertatzen den bezala.

Nolakoak dira orain zuen egunak? Zein betebeharrak dituzte? Eta zein baldintza?

Bi lan dauzkagu, krisi garaia haue- tan pluriengaituak gara. Egune- roko lana eta auzipetu baten lana. Batetik bestera gelditu gabe.

PP, PSOE eta UPyD alderdiak inkomunikazioaren alde agertu dira jakinda zer gertatzen den bost egun horietan. Zer duzu horren inguruan esateko?

Inkomunikazioa, euskaldunen hiztegian, tortura da. Bost egun horiek dira poliziak zu torturatzeko hartzen duen tarte. Eta epailek badakite hori, fiskalek ere bai. Zer esanik ez auzi-medikuek. Eta Barne Ministerioko eta Barne Sai- leko arduradun politikoek.

Nola sumatzen duzue 'Egunkaria auzia'k Euskal Herri- kanpora irazten den oihartzuna?

Oihartzun handia izan zuen itxiera- ran. Herrialde Katalanetan ikaragarria. Espainian ez horren handia, Madrildigo talde solidario batzuk kenduta. Nazioarte- ko prentsan ere segimendu handia edukitu zuen, oso larria delako egun- kari bat itxera, euskarazko bakarra, eta arduradunak torturatzeko. El- kartasun korporatibo horrek lortu zuen munduko egunkaririk gar- rantsutsuenetan erreportajeak egitea.

Epaietatik haratago, nola ikusten duzue euskal gatazka? Ez diru-

di ETAK armak utzi nahi dituenik, ezker abertzaleko kideak behin eta berriro atxilotzen dituzte Madriletik... Aukerarik badago konponbiderako? Zein izan daiteke lehenengo pausoa edo pausoa?

Kondenatuta gaude konponbide batera iristera. Lehenengo eta behin abertzaleok panorama argitu behar dugu eta argitu ondoren elkarrekin jardun behar dugu. Bartzuk fase berri bezain interesgarri baterako urratsak ematen ari dira, kartzelarekin ordainduta. Herri honek merezi du gatazka gako politikoa kudeatzea. Eta itxaropentsu naiz, aurki beste eszenario batean egongo gara. Ilusionatuta nabil.

Etorkizunaren bi aukeretan pentsatu al duzu?

Guardia Zibilari ez nioke elkarriketarik egungo, horiek akusatuen aulkian jarri behar ditugu

Lehenengo premisa betetzen bada, absolutzioa, kalte-ordaina eskatuko dugu

Bai noski. Baina, zuen laguntzarekin, irabaziko dugu eta bartzuk irentsi egin beharko dute duela 7 urte hasitako bidegabekeria hura. Eta gurea konpondutakoan, falta direnak konpontzen hasi, segi, behar dugu.

Zeini egingo zenioke elkarriketaz auzi honetan? Fiskalari, epaileari, Guardia Zibilari...

Guardia Zibilari ez nioke elkarriketarik egungo. Horiek akusatuen aulkian jarri behar ditugu, torturazteagatik. Eta *Egunkaria* ETAKoa ez zela jakinda ere, prozesua abiatzeagatik. Guardia Zibilari OK po-

litikoa eman zio(te)n politikoa(k) ere akusatuen aulkira. Auzitegiko medikua ere bai, gu torturatu gintuztela ikusi eta itsuarena egiteagatik. Guri ere iritsiko zaigu, Argentina eta Txilen bezala, giza eskubideak urratu dituztenak akusatuen aulkian esertzeko uea. Jakin dezatela Videlak, Arguindeguik, Galtierik, Astizek, Echevarria mexikarrak eta konpainiak nola bukatu duten.

Gatazkari buruzko galderari berriro erantzi, zein dira oztopo nagusienak?

Barkatu, luze jardungo nuke. Eta nahi baduzue, etorriko naiz beste egun batean horretaz aritzera. Baina gaur *Egunkaria* tokatzen da, eta ez nituzke biak nahastu behar. Gatazkaren irtenbideez jardun nahi baduzue, itzuliko naiz.

Opor egun hauetan zein da zuen agenda?

Lana, lana eta lana. Lagunekin egon, familiari bazkari goxoa jarri Urte Berri egunean... (24an eta 25ean haien kontura bapo jan ondoren) eta epaiketa prestatzen segi. Agenda betetzen ari zait Euskal Herriatik kanpo, askok nahi dutelako gurekin egon eta elkartasuna adierazi.

Absolutzioaz gain, besterik eskatzen duzue epaiketan? Itxierak suposatzen ahal zuen diru kalte ordaintzea, adibidez?

Kalte-ordain ekonomikoa epailek erabaki dezakete sententzian. Baina, lehendabizi epaiketa irabazi beharra dago. Gero ikusiko dugu. Lehenengo premisa betetzen bada, absolutzioa, ez izan dudarik kalte-ordaina eskatuko dugula. Enpresa bati kalte ekonomikoa egin zioten, oso handia. Enpresa horrek baliobat zeukan merkaturatu. Eta hori ordaindu beharko dute. Baina lehendabizi, irabaz dezagun epaiketa.

Casa Eceizak irabazi du Enpresa Ekimen Berritzaileak Sortzeko Bigarren Lehiaketa

Ekonomia » Aurrez prestatutako jakiak egiteko ideiarekin, 24.000 euroko saria jasoko du; eskualdean jarri beharko du martxan.

IÑIGO TERRADILLOS

Goi mailako sukaldaritzari edo *gourmet* sukaldaritzari zuzendutako aurrez prestatutako jakiak egitea helburu izango duen ekimenarekin irabazi du Casa Eceizak Enpresa Ekimen Berritzaileak Sortzeko Bigarren Lehiaketa.

Parte hartu duten ekimenen aurrean, epaimahaia «oso positiboki» baloratu du irabazleak aurkezturiko bideragarritasun plana, «gainerakoak baino lanpostu gehiago sortzeko aukera ematen baitu».

«Izaera berritzaile edota teknologikoa duten enpresa ekimen berriak sustatzeko helburuz» sortu zuen ekimena Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziak Mondragon Korporazioarekin elkarlanean. 2007an egin zuten lehendabiziko lehiaketa, eta orduan Obeki enpresa izan zen irabazlea. Bi urtez behin irakitzeko parte hartzeko deialdia.

Jarduera berria martxan jartzeko dirua eta aholkularitza

Energia berritzaileekin, material birziklatuekin loturiko produktuen garapenaren edota nekazaritzarekin loturiko teknologien bidetik, esaterako, hainbat proiektu aurkeztu dituzte bigarren lehiaketa honetarako. Saria, baina, ekimen batek eman dezake soilik, eta Tolosaldea Garatzen Administrazio Kontseiluak Mondragon Korporazioaren Promozio zentroko kideekin batera, Casa Eceiza dela aurtengo irabazlea erabaki du.

Casa Eceizak 24.000 euro jasoko ditu ekimena gauzatu ahal izateko, eta 24 hilabete izango ditu hori eskualdean martxan jartzeko. Diru laguntza ideia osatzeko fasean eta enpresa bera ezartzeko eta abiarazteko unean sortzen diren gastuak ordaintzeko bideratuta dago; ideien patenteen gastuak, zerbitzu edota produkzio instalakuntzen alokairuek sortzen dituen gastuak edota enpresako G+I+Brekin zuzenean lotutako pertsonalak sortutako gastuak, esaterako. Halaber, Tolosaldea Garatzeneko doako aholkularitza laguntza ere izango du. Efficient Home Energyren egoitzan egin

zuten atzo sari banaketa. Bertan izan ziren, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia, Jokin Beldarratz Tolosaldea Garatzeneko lehendakaria eta Tolosako alkatea, Miguel Lazpiur Confesbaskeko lehendakaria, Javier Sotil Mondragon Korporazioako lehendakariordea eta Xabier Sabalza Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza eta Informazio Gizartearen zuzendaria. Olano eta Lazpiurren eskutik jaso zuen Jon Ander Torrea Casa Eceizako kudeatzaileak irabazlearen saria.

Bereziki gozogintzaren alorrean egiten dute lan Casa Eceizan. «Etengabe berritzen eta egungo merkatura egokitzen» joan direla nabarmendu zuten atzoko ekitaldian, eta «euren produktuen kalitatea zaintzearen ondorioz gure mugetatik at zabaltzea» lortu dutela. Halaber, eurak irabazle bezala aukeratzeko aurkeztu duten ideia «berritzaile» izateaz gain, ekimenak «eskualdean sortuko duen lanpostu kopurua» ere aintzat hartu dituztela azaldu zuten.

Egun bizi dugun egoeraz ere jardun zuten, eta horrelako ekimenak bultzatzeak duen «garrantzia» nabarmendu zuten, «etorkizunerako ezinbestekoak baitira».



Efficient Home Energyren egoitzan egin zuten atzo sari banaketa ekitaldia. I.T.


Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Txakurkumeak.** 2009 urteko irailaren 5ean jaiotako txakurkumeak nahiz arrak saltzen dira. Ama eta aita Braco alemaniar arrazakoak dira. Interesatuak daudenak edo informazio gehiago nahi dutenak dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.



A. IMAZ



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

L Laburrak**Eguberrietako egitaraua antolatuko du Udalak**

ALEGIA ● Udalak Eguberrietarako egitaraua antolatuko du. Gaurtik aurrera eta biharko ekitaldiez gain, etzi, 11:15ean, Txintxarri Abesbatzak meza nagusian abestuko du. Hilaren 27an, igandea, 12:15ean Txintxarri Txiki eta Txintxarri Abesbatzen kontzertua izango da. Hilaren 28an eta 29an, 16:00etan, Eguberrietako pilota topaketak egingo dituzte. Urtarrilaren 1ean, ostirala, 11:15ean Txintxarri Abesbatza kantuan ariko da meza nagusian. 12:15ean udal hautesietik mandarinak eta intxaurrek banatuko dituzte plazan. Urtarrilaren 5ean, astearte, 12:00etan ume jolasak eta txokolatada izango dira plazan. 19:00etan emango zaio hasiera kaleetan zehar egingo den Erregeen kabalgatari.

Bihar Musika Bandaren kontzertua eta kalejira

TOLOSA ● Gabon Eguna ospatzeko, Tolosako Musika Bandak bihar kontzertua emango du 12:30ean Zerkasian. Horrez gain, bihar ere, kalejira egingo du 20:00etan Gorriti Plazatik abiatuta. Korreo kaleetik gora Solana kalea hartuko du eta Plaza Zaharrean geratuko da, bertaraten diren koro eta herritarrekin batera *Olentzero* eta *Mesias sarritan* interpretatzeko. Jarraian, Kale Nagusira joko du eta handik Plaza Berrira joango dira kalejira bukatzeko. Plaza Berrian, Eguberri zorientsuak opatuz, *Hator*, *hator* eta *Birjina maite* abestiak interpretatuko dituzte.

Kontzertua emango dute gaur akordeoi ikasleek

TOLOSA ● Tolosako Musika eskolan akordeoi ikasleek kontzertua emango dute gaur, 20:00etan hasita. Amaia Lizaso eta Koldo Tarragona irakasleen zuzendaritzapean ariko dira akordeoiariak emandian.

Bonbereneak Okupazio Eguna ospatuko du gaur

TOLOSA ● Bonberenearen 12. urterrena ospatzen ari da hainbat ekitaldirekin. Gaur, hain zuzen, Okupazio Eguna ospatuko dute. Ekitaldiei hasiera 19:30ean emango diete: Bonberenea txarangarekin kalejira egingo dute herrian zehar. Afarria 21:00etan izango da eta 00:00etan su artifizialak botako dituzte.

Kantujira berezia antolatu dute hilaren 26rako

TOLOSA ● Hilaren 26rako Tolosa Kantarik kantujira berezia antolatu du. Tontokalen 12:00etan hasita, Hirukide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeetako ikasle eta gurasoekin batera eta parte hartu nahi duten guzietekin, kantujira bereziarekin emango zaio agurra urteari. Eguberrietako kantuak abestuko dituzte eta tartean bestelako kantu ezagunak ere entzun ahal izango dira. Kantuan egin nahi dutenei laguntzeko, trikitilari eta soinu-joleak arituko dira. Eta gozari bukaera emateko, Abastos plazan mokadutxo emango zaie kantura joarriten diren guzietei, Xirimiri Txokolategiak eta Sukia Harategiak emandako laguntzarekin. Tolosa Kantarik gonbitea luzatzen du euskal jantziak soinean jantzita joateko larunbatean.

Txapa tailerra antolatu du Berdintasun Sailak gaurko

TOLOSA ● Berdintasun Sailak txapa tailerra antolatu du gaurko, 18:00etan, Kultur Etxean. Bertara joatearekin nahikoa da parte hartzeko. «Zure leloak asmatu, bilatu gustuko dituzun irudiak eta egin itzazu zure txapak zure leloekin», azaldu dute Berdintasun Sailetik. Tailerraren helburua neska gazteek beraien leloak eta txapak diseinatu dezaten eta aldi berean berdintasunerako jakabuntza landu dezaten da.



Txapelketaren memento bat. HITZA

Migelmari Barojak irabazi du Xake Aktiboko Txapelketa

Tolosa » Amarotzen jokatu zen; hurrenez hurren, bigarren eta hirugarren, David Moreau eta Txomin Agirre izan ziren.

ERREDAKZIOA

Pasa den igandean IV. Tolosako Xake Aktiboko Txapelketa jokatu zen Amarotzen. Bost txandatako sistema suitzarraren bidez jokatu zen, jokalarri eta partida bakoitzeko 15 minututuekin. Txapelketa oso borrokatua izan zen eta azken minutura arte itxaron behar izan zen txapelduna nor izango zen jakiteko. Baina aurreikuspenek ez zuten hutsik egin eta sailkapen onena duenak, Migelmari Barojak, irabazi zuen txapelketa. Iazko txapeldun bera beraz aurten ere.

Bigarren postuan David Moreau amaitu zuen partida bakarra galdu eta gero, Barojarekin jokutakoa, alegia. Hirugarren posturako bost jokalarri zeuden berdinduta baina azkenean, gutxigatik izan bazen ere, Txomin Agirre izan zen podiora igo zena berdinketa haustean lortutako puntu hobeei esker.

Azkenik, infanbil onarentzako sari bat ere banatu zuten. Mikel Aretxagak irabazi zuen azken txandan garaipen garrantzitsua lortu eta gero.

**Gabonetako saskiak badu sariduna**

ALTZO ● Udalak altzotarrentzat prestatzen duen Gabonetako saskia Toki Alaiko Joxe Mari Agirre eta Juanita Luloagari tokatu zaie aurten. Juanita Luloaga bere biloba Mainerrek lagunduta jaso zuen saskia. HITZA

Garmendiak Trofeo Mostoles Industrial irabazi du Coruñan

Orendain » Bigarrenari zortzi segundo-ehunen atera zizkion bakarrik zaldun orendaindarrak maila handiko lehiaketan.

ERREDAKZIOA

Jesus Garmendia zaldun orendaindarrak Trofeo Mostoles Industrial irabazi berri du Coruñan (Galizia). Proba horrek hasiera ematen zion hiri horretako XIX. Nazioarteko Jauzien Lehiaketari. Garmendia Calvaro's Konkert zaldiarekin aritu zen lehian eta ibilbide azkarrena burutu zuen elementurik lurrera bota gabe. 24

segundo eta 91 segundo-ehunen behar izan zituen. Bigarrenari, Luis Sabino Consalves portugaldarrari zortzi segundo-ehunen bakarrik atera zizkion. Hirugarren postua Daniel Nielson britainiarrentzat izan zen, 27 segundo eta 30 segundo-ehuneko denborarekin.

Zaldun orendaindarrak oso gustura azaldu da garaipenarekin: «Oso garrantzitsua da hasierako proba batean garaipenarekin hasitea. Gure agendan lehiaketa hau markatuta geneukan zer bait oso berezia bezala. Maila handikoa da eta urteko azkena da. Gabonek zapore hobegoa izaten dute garaipen batekin».

Enirio-Aralarri buruzko erakusketa ikusgai da egunotan Amezketan**ERREDAKZIOA**

Herriz herri dibalen Enirio-Aralar Mankomunitatearen erakusketa Amezketan dago egunotan. Gela balioanizdunean ikusi daiteke, 17:00etatik 19:00etara, liburutegi-ko ordutegian, hilaren 30a arte.

Beste ekitaldia Amezketa Udalak Dulpo-Nepali emandako laguntzarekin aurkezpena izango da, gela balioanizdunean, gaur 20:30ean. Ataungo Jose Ramon Agirre Marronek emango du proiektuaren berri, bere bitartez bideratu baitu laguntza Udalak.

Datorren astean mahai-inguru interesgarria izango da Aralarri buruz. Hilaren 29an izango da,

20:30ean eta gela balioanizdunean. *Aralar, nola ikusten dugun gaur egun eta nola ikusi nahi genukeen izango da solasaldia gairia.*

Bestalde, Lurreko Telebista Digitalari (LTD) buruz Udalak egun Euskal Telebistak eta TVEk dituzten kanalak LTD erara ikusi daitezkeela argitu du. Kate pribatuek gauza bera hilaren 31rako egingo zutela agindu zuten, baina azken bilan 2010eko apirila arte ez direla jarriko aipatu dute Itelazpitik. «Dena dela, lasai egon, LTDko seinalea erabat jarri arte orain daukagun sistema ez dute kenduko eta ez da inolr geratuko telebista ikusi gabe», gaineratu du Udalak.



GipuzkoaKultura

"GipuzkoaKultura" telebista saioak, gure inguruan daukagun kultura ekarriko digu etxera, bizirik dagoena eta batez ere, gertuko eta egunerokoa."

"El programa televisivo "GipuzkoaKultura" nos acercará a nuestra cultura, una cultura viva y, ante todo, cercana y cotidiana."

"L' émission de télévision - GipuzkoaKultura - nous permettra d'approcher notre culture, une culture vivante mais surtout proche et quotidienne."

Gipuzkoa2.0
KULTURA ETIA BUKARRA
WWW.GIPUZKOAKULTURA.NET

"Euskal kulturaren erabilera gutxiñon ohitura izatea helburu duen bide erria."

"La hoja de ruta que quiere convertir en costumbre cotidiana el uso de la cultura vasca."

"La feuille de route qui veut changer en coutume quotidienne l'usage de la culture basque."



Golena telebista

Osteguna, 22:15etan.

Goleri telebista

Osteguna, 22:30etan.

28 kanala

Osteguna, 22:00etan.

Erio telebista

Osteguna, 22:00etan.

zure, gure, denon TB saioa.

www.gipuzkoakultura.net

www.tokiko.tv

Atila y los Unos taldeak Javi Otxoa omenduko du

Tolosa » Ekainean zendu zen taldekidea; berari eskainitako kontzertua Bonberenean izango da larunbatean 22:30ean.

ERREDAKZIOA

Larunbatean, hilak 26, 22:30ean omenaldi ekitaldia egingo diote Javi Otxoari Tolosako Bonberenean. Otxoa urteetan Atila y los Unos taldearen baxu-jotzailea izan zen eta ekainean hil zen. Ekitaldi irekia antolatu dute adiskideek eta Atila y los Unos -ek ere kontzertua eskainiko du.

Prestatu duten kontzertuan beraien erreperatorioko abesti guztiak joko dituzte. Lehenengo abestietan, Javi Otxoaren postua nolabait hutsik egongo da, hau da, baxu-jotzailerik gabe joko dituzte abestiak. Baina, ondoren, abestiz

abesti, baxu-jotzaile ezberdinak igoko dira eszenatokira. Tolosako musika talde ezberdinetakoak izango dira musikari hauek eta baita Donostiako talde batzuetakoak ere.

Atila y los Unos taldeak, azken kontzertua Bonberenean eskaini zuten eta orain ere, Bonberenean elkartuko dira herritar, lagun, jarraitzaile eta gertukoiek kontzertua eskaintzeko, Bonberenean «etxean» bezala sentitzen dira-eta.

Nahi duen orok izango du bertara joan eta kontzertuaz gozatzeko aukera, baina Atila y los Unos taldearen jarraitzaile izan diren guztiei deialdi berezia egin nahi diete antolatzaileek.

Orain artean ezer argitaratu ez badute ere, Javi Otxoa taldeko baxu-jotzailearen omenez egingo duten kontzertua grabatu egingo dute, ondoren DVD bat argitaratu ahal izateko.

Udalak auzolan taldearen jarraipena bermatu nahi du

Anoeta » Taldearen aurkezpen bileran aurtengo lanen eta datorren urtekoen inguruan aritu ziren.

ERREDAKZIOA

Anoetako Udal Ingurumen batzordeak orain hiru bat aste herriko auzolan taldeari buruzko aurkezpen bileran hartutako erabakien berri eman du.

Bileran «auzolan taldea sortzeko emandako lehen urratsak eta bailara desberdinetako baserritarren kezka, behar eta proposamenak jasotzeko egindako elkarrizketak», aipatu zituzten batetik. Bestetik, orain arte 2009. urtean

zehar egin diren lanen inguruan ere hitz egin zuten, «batez ere herri bideen konponketa eta txukunketak, erreka garbiketak eta abar» aipatu zituztelarik.

Bukatzeko, datozen urteei begira «Udalari egitasmo hau mantendu eta herritarrekin batera indartzea gustatuko litzaiokeenez, hurrengo urteko plangintzari buruz» ere aritu ziren.

Hemendik aurrera, hortaz, Udalaren helburuetako bat herritarren lehentasunak kontutan hartzea izango da.

«Udalak aurkezpen bileran eta auzolan ekimenean parte hartu duten herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkie eta espero du hurrengo urteei begira elkarlanak jarraituko duela», adierazi dute.



Angel Perez, Iñaki Amenabar eta Gonzalo Perez izan ziren proiektuaren berri ematen. E.MAIZ

Olentzero Ekuadorrera ere iritsiko da bihar

Asteasu » Ekuadorreko Mocha kantonamendura eskolako materialarekin eta gozokiakin betetako 200 motxila iritsiko dira.

ENERITZ MAIZ

Olentzerok beste bidaiaria bat egin beharko du aurtengoan eta Euskal Herriko umeak bisitatzearekin batera Ekuadorreko Mocha kantonamenduko Mocha Nuevo auzora ere joango da. Horixe argitu zuten behintzat atzo goizean Iñaki Amenabar Asteasuko alkateak eta Ekuadorretik etorrita Euskal Herriari bizi diren Gonzalo Perezek eta Angel Perezek.

Mocha kantonamendura 200 motxila bidaltzearen proiektua Kultur Hamabostaldian sortu zen. Izan ere, Kultur Hamabostaldiko egun bat Ekuadorri eta Asteasura etorritako ekuadorrari eskaini zieten. Iñaki Amenabar alkateak azaldu zuenez, proiektuaren helburua da Ekuadorrera «200 motxila bere eskolako materialarekin ematea». «Proiektua aurkeztu zigitenean, interesgarria iruditu zitzaigun eta pozik gaude beharrenda dauden haurrei laguntzen diogulako», gaineratu zuen.

Ekuadorraren izenean hitz egin zuen Gonzalo Perezek Asteasuko Udalarekin batera kultur ekintza eta trukeak egin izana «plazer bat» izan dela nabarmendu zuen. «Proiektu hau egiteko egin den ahalegina asko eskertzen dugu», adierazi zuen.

Eskolako materiala eta gozoki zorro bat

Proiektu honi esker, hortaz, Ekuadorreko Tungurahua probintziako Mocha kantonamenduko Mocha Nuevo auzoko haurrek 200 motxila jasoko dituzte bihar.

Proiektuarentzat aukeratu duten leloa *Pozik ikasteko, nire eskolako motxila daukat...* izan da eta motxilekin batera eskolako materiala eta gozoki zorro bat jasoko dute Mocha Nuevoko umeek.

200 motxila hauek jasoko dituztenak «haur pobreak dira eta askok 6 kilometro egin behar izaten dituzte beraien eskolara joateko. Euskal Herriko jende solidarioari esker, bihar Asteasutik aterata Olentzero ekuadorrera iritsiko da eta horregatik motxila guztiak ikurrina izango dute», gaineratu zuen Asteasuko alkateak.



Haur bakoitzak bihar bertan jasoko duen opari sorta. E.MAIZ

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Olentzero eta Mari Domingi 'ERE'tik ozta-ozta libratu dira

Gizartea » Haurrak izango dira Tolosaldeko eta Leitzaldeko protagonistak bihar, urteko egunik handienetako batean.

ERREDAKZIOA

Andoni Egañaren bost urteko alabak agian ulertuko zuen ERE bat zer den, baina berriz azaldu beharra duenarentzat oharra: Olentzero eta Mari Domingi bihar etorri etorriko dira, baina aurten gozokiak eta opariak erosteko iaz baino arazo handiagoak eduki dituzte.

Haur batzuk hizketan lehenaldiz hasten direnean «aita», «ama» eta antzekoak esan ohi dituzte. Beste batzuk ordea, esaldi bat errepikatzen dute behin eta berriz *loritoen* moduan: «eta zergatik?». Bigarren multzoko haurrak etxean

dituenak izerdia franko bota behar du aurtzen. Ea nor jartzen den deabrutxo asegaitez hauei mentoko egoera sozio-ekonomiko-politikoaz azaltzen: «Olentzero krisian dagoelako»; «Eta zergatik?»; «Denak krisian gaudelako, eta bera ere bai»; «Eta zergatik?»; «Ekonomia gaizki antolatuta dagoelako»; «Eta zergatik?». Gabonetako bakearen benetako esanahia ikasten hasten zara orduan.

Baina haur baten irribarreak munduko gaitz guztiak konponatzen dituzte, Olentzero eta Mari Domingi dena emateko prest etorriko dira bihar. Ongietorria emateko edo Gabonak ospatzeko, kantuan ibiliko denik ere izango da Eguberri bezperan kale eta baserrietan barrena. Horretarako ere kolore guztietako deialdiak egin dituzte beste hainbeste elkartetok Tolosaldean eta Leitzaldean.



Mari Domingirekin egon dira Villabona-Zizurkilgo ikasleak. Areson berriz Eguberrietako Jaialdia egin dute. HITZA

» EGUBERRI BEZPERA, HERRIZ HERRI

ABALTZISKETA

■ **09:00.** Guraso, ikasle eta irakasleak elkartuko dira. Goiz eta arratsaldean kantuan ariko dira herrian zehar.

ALBITZUR

■ **09:00.** Haur eta gurasoak elkartuko dira plazan, herri-gunean abesteko. Gazteak baserri baserri ariko dira eta jubilatuei opariak banatuko dizkiete.

■ **19:00.** Olentzero kalejiran abiatuko da Elane tabernaren ondokik eta udaletxeko arkupean hartuko ditu haurrak.

ALEGIA

■ **11:00.** San Juan eskolako ikasleak abesten ibiliko dira kaleetan zehar, Larraitz auzotik hasita.

■ **17:30.** Olentzero etorriko da plazara. Harrera egiteko bertan izango dira Txintxarri Abesbatza eta Sutarri Dantza Taldea.

ALTZO

■ **09:30.** Altzo Azpin elkartuko dira. Ondoren, 10:30ean, Altzo Muinon bilduko dira guraso, ikasle eta irakasleak etxetik kanpantxeratik.

■ **13:00.** Hamaiketako Elordi elkartean, gurasoek antolatuta.

AMEZKETA

■ **09:00.** Eskolako haur eta gurasoak Ugarten elkartuko dira.

■ **09:00.** Plazatik iritenda, euskal preso eta iheslarien alde eskean ariko dira San Martin auzoko ba-

serrietan. 15:30ean Ugarten elkartu eta herrian zehar ibiliko dira eskean.

ANOETA

■ **08:00.** Gazte Asanbladako kideak kantuan aterako dira baserri baserri 08:00etan Gaztetxetik iritenda.

■ **14:00.** Gazte Asanbladako kideen bazkaria Gaztetxean.

■ **18:00.** Olentzero eta Mari Domingi Isastitik aterako dira. Ibilbidea honakoa izango da: Isasti-Solkorre-Igarabide-plaza. Hemen egingo zaie ongi etorria Gazte Asanbladako kideek, Loatzo Musika Eskolakoek eta Udala Dantza Eskolakoek hartuko dute parte. Ondoren Olentzerok eta Mari Domingi gozokiak banatuko dituzte herbiltzen diren ume eta gaztetxo-arten.

ARESO

■ **10:00.** Etxetik aterako dira kantari eta aterako dira beharra duten haurrentzat bideratuko dute.

■ **18:00.** Mañenea etxeko atarira Olentzero iritsiko da eta ondoren opariak plazan banatuko ditu.

ASTEASU

■ **10:00.** Gabon kantak abestuko dituzte.

■ **12:00.** Frontoian elkartuko dira guztiak Olentzerori gutunak emateko eta opariak jasotzeko.

BALIARRAIN

■ **14:00.** Plazan elkartu ondoren kantuan ariko dira.

■ **20:00.** Olentzeroren etorrera.

BEDAIO

■ **15:00.** Gabon koplak zaharrak abesteko bilduko dira eta baserri baserri joango dira, urte berri on bat ospatuz.

BIDEGOIAN

■ **Kantuan.** Eskolako ikasle, guraso eta irakasleak kantuan ariko dira herrian zehar.

GAZTELU

■ **18:30.** Olentzero herrira joango da eta opariak banatuko ditu Erroizpe Azpiko kirol eta kultur elkartean.

IBARRA

■ **18:30.** Olentzero musikariekin eta bere laguntzaileekin batera laskun auzotik abiatuko da.

■ **19:00.** Euskal Herria kalea zeharkatuz Olentzero plazara iritsiko da. Bertan, haurrak Olentzerorekin egoteko aukera izango dute.

HERNIALDE

■ **19:00.** Olentzerori ongi etorria kantari egingo diote.

IKAZTEGIETA

■ **08:30.** Kiroldegiko aparkalekutik aterako dira eta kantuan ibiliko dira lehenik baserri baserri, eta gero herri-gunean (Amnistiaren aldeko Olentzero).

■ **18:00.** Olentzeroren eta Mari

Domingiren etorrera. Opariak banatuko dituzte.

IRURA

■ **11:30.** Hamaiketako Ikastola-koekin eta gazteekin ateratzen direnentzat.

■ **18:30.** Jaiotza biziduna San Miguel plazan.

■ **19:00.** Olentzeroren etorrera eta opari banaketa.

LEITZA

■ **12:00.** Eskolatik umeak jantzita aterako dira, Olentzerorekin eta Mari Domingirekin. Herriitik buelta egin ondoren, plazan bilduko dira. Olentzeroren laguntzaileek eskutitzak jasoko dituzte eta gozokiak banatuko dituzte.

■ **18:30.** Menditik Aurrera Elkarte-joango da Olentzero.

■ **Ondoren.** Bertso eskolakoekin ongi etorria egingo diote eta plazan ekitaldia burutuko da. Amaitzeko kalejiran iritengo da Olentzero, txistulariekin eta Jeiki abesbatzako kideekin.

ORENDAIN

■ **09:00.** Plazan elkartuko dira eta koplak eta gabon kantak eskainiko dituzte baserri baserri goiz eta arratsaldean.

TOLOSA

■ **Ibilbidea.** Olentzero menditik etorriko da, (Montezkuetik). Haurrak San Frantzisko elizaren atzean bilduko dira (San Juan kalean) Olentzerorekin batera. Ibilbidea:

San Juan, Soldadu kalea, Trianguloa, Korreo, Berdura Plaza, Kale Nagusia, Plaza zaharra eta Zerkausia.

■ **Parte hartzaileak.** Trikitilariak, antortxak, Olentzero eta kriselua.

■ **17:15.** San Juan kalean bilduko dira parte hartu behar duten haurrak.

■ **17:30.** Hasiera, kalejira trikitilari-ekin.

■ **17:35.** Triangulo plazako arkupetan Olentzerori kantatuko diote.

■ **17:40.** Berdura Plazan Udaberriko haurrek dantza egingo dute, San Bernardo eta Kazkabarrako haurrak bertsoak abestuko dituzte. Olentzerok Marrazki Lehiaketako sariak banatuko ditu eta haurrek berarekin egoteko aukera edukiko dute.

■ **18:00.** Zerkausira iritsiko da Olentzero.

■ **Antolatzaileak.** Gazte guneko partaideak, San Bernardo Eskautgia elkarteak eta Kazkabarra taldeak eta Udaberri dantza taldea.

VILLABONA

■ **17:45.** Olentzero iritsi bitartean txorixo mokadutxoan banaketa Otsabin.

■ **Ondoren.** Olentzero eta Mari Domingiri ongi etorria eta kalezikaleko ibilaldi alaiak. Errebote plaza, haurren solasaldia Olentzero eta Mari Domingirekin. Festa giroa ere egingo da: dantzariak, abesbatzak, musikariak, bertsolariak...



7°
6°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	11°
HOTZENA	6°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkiak

■ **Irura.** Gaur 17:30ean *Galtzagorri-to, Inaxito!* bertso antzerkia Musika aretoan.

Deialdiak

■ **Bidania.** Guraso Elkartearen Gabon Zozketako zerbaki saritua 003 izan da, pasa den ostiralean itsuen zozketan ateratakoa, hain zuzen.

■ **Villabona.** Tolosaldea Sahararekin elkartearen jaki bilketak aurrera darrai. Villabonako Eroski, Todo Todo, BM eta Udalean bertan utzi daitezke urtarilaren 4a bitarte.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Betelu.** Carrillo, A Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiolo, A.M. San Martin, 5. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Ur eta lur. **09:00.** Alex eta Alexix. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Kalekanto. **10:30.** Ilunpean. **11:00.** Erloklip. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **10:30.** Ilunpean. **11:00.** Erloklip. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Klipak. **12:30.** Zahar berri. **13:00.** Muka muka. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Kalekanto. **14:30.** Ilunpean. **15:00.** Erloklip. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Klipak. **16:30.** Zahar berri. **17:00.** Muka-muka. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Kafe t'ardi. **18:30.** On ein! **19:00.** Haurrekin jolasean. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Golb tb. (*16:30etik 20:00etarako blokea 4 orduko errepikatuko da).

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Jexux Mari Mendizabalek eta Joxemari Olasagastik aizkora apustua itxi zuten herenegun Tolosako Kantabriko tabernan: 4 minutuko errenta; kanako 4 enbor zutika eta bakoitzak 6.000 euro.

Dirua mahai gainean eta aurrera

ASIER IMAZ

Bigarrengan bai. Bigarren-goan Mendizabali azaldu zitzaion aurkaria eta ez nolanhikoa gainera: Joxemari Olasagasti handia.

Bekaina zimirututa baina bromak egiteko parada galdu gabe, horrela zegoen herenegun aizkora igeldoarra behin desafioa itxi ostean, hau da, bere saltsan.

Adunarrak ez zuten hitz egiteko gogo handiegirik: 4 minutuko errenta; kanako lau enbor zutika; egurrak berak emateko aukera... hau da, eskatutako guztia onartu zion Olasagastik, baina lan handiek sortzen duten errespetuak zitekeen bere aurpegian.

Luze aritu zen Olasagasti Kantabriko tabernan bere aldeko zerbait lortu nahian, «baina Mendizabal beretik ez zen mugitzen». 62 urte ditu adunarrak eta adina kontutuan hartzekoa baldin bada ere ez da ahaztu behar «egur handietako artista» bera dela. Kanako egurrak normalean ebakitzen dituzten enborren bikoitzak izan daitezke, oinbikoak alde batetara uzten baldin baditugu.

Behin apustua itxi ondoren, elkarrekin afaltzera. Olasagastirentzat ziurrenik hor hasiko zen apustua. Hori bai, atzo gosaldun ondoren ekin omen zien entrenamenduei igeldoarrak.

Martxoaren 28an

Tolosako edo Azpeitiako zezen-plazan jokatuko dute aizkora apustua, 2010eko martxoaren 28an. Alde bakoitzak 6.000 euro jarriko ditu mahai gainean. Galdu ezin den desafioa, zalantzarik gabe.



Dirua mahai gainean eta broma gutxi. Garai bateko ohiturak eta desafioak bizirik diraute oraindik Kantabrikan. A. IMAZ

Eskuratu



ko Bertsolari Txapelketa
Nagusiko **DVDa**
berria rekin



gogoratu noiznahi historia egin duen txapelketa

txapelketako bertso nabaratuak 2 DVDtan

ABENDUAREN **24**TIK AURRERA,
zure kioskoan



+ 12 €

Baduzu zer oparitu
Gabon hauetan!

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

A Agurrak



Zorionak Maddi!

Maddi Otero (Anoeta).

Zorionak etxekoan partetik eta 11 muxu.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...